



EBAZPENA, 2016KO OTSAILAREN 1EKOA, EUSKO JAURLARITZAKO SEGURTASUNA KOORDINATZEKO ZUZENDARIARENA, BITARTEKO FUNTZIONARIOEN LAN-POLTSA SORTZEKO, IZAERA SUBSIDIARIOAREKIN BETETZEKO PERTSONAL MOTA HONEN ZERBITZU-PREMIAK EUSKADIKO UDALTZAINGO-AGENTEAREN KATEGORIAREKIN.

Eusko Jaurlaritzak Udaltzaingoen Oinarrizko Eskalako aldi baterako agenteen lan-poltsa sortu zuen EAeko udal askotan dauden arazoei konponbidea emateko eta polizia-zerbitzuko behin-behineko beharrak aldi baterako ordezkapenekin estaltzeko. Konponbide hori ezartzen parte hartu zuten, batetik, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak (aldi baterako udaltzaingoen hautaketa- eta prestakuntza-eginkizunak egin zituen) eta, bestetik, Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritzak. Zuzendaritzak Segurtasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 194/2013 Dekretuko 18. artikulua araberako segurtasun publikoaren arloan eskumena duen saileko koordinaziorako organoa da zuzendaritza hori, eta horregatik bere gain hartu zuen lan-poltsaren kudeaketa; izan ere, laguntza emateko funtzioa du udaltzaingoeekin hartu-emanak izateari eta udalek izan ditzaketen beharrei arreta emateari dagokionez.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiaren otsailaren 24ko ebazpenaren bidez, oposizio-bidezko hautaketa-prozedura baten deialdia egin zen eta prozedura hori prestakuntza-ikastaro batekin osatuko da, Udaltzaingoen aldi baterako agenteen poltsa bat sortzeko (oinarrizko eskala eta C-2 sailkapen-taldea), Udaltzaingoa aldi batean lan egin dezaten. Deialdi hori 2014ko otsailaren 25ean argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Poltsa sortu ostean, bertan sartu da hainbat txandatan, oposizioen fasea gainditu ondoren beharrezko polizia-prestakuntza akademikoa jaso duen pertsonala. Prestakuntzaren kostu handia kontuan izanik, prestakuntza hori txandaka egin da aurreikusitako beharrezko kopuruekin, udalek egindako eskaeretan adierazitako zerbitzu-beharrak betetzen direla bermatzeko. Horregatik, egun, poltsan ez daude oposizio-fasea gainditu duten pertsona guztiak.

Egun, poltsan udalek egindako eskaerak estaltzeko behar beste pertsona daude, baldin eta lan egin behar duen udaltzaingo horrek ez badu ziurtatu behar gutxienez Europako kontseiluak hizkuntzetarako onartu zuen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B-2 maila duela (edo euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetzeko, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren araberrako hizkuntza-eskakizuna edo pareko titulua, EHAA, 219 zk., 2010-11-15); beraz, eskaera horiek betetzeko ez da beharrezkoa beste prestakuntza-txanda batzuk antolatzea. Hala ere, B-2 maila egiaztatzen duten pertsona gutxi daude eta udalek gero eta eskaera gehiago egiten dituzte, baina ezin zaie horiei guztiei behar bezala erantzun, zeren udalek hizkuntza-eskakizun hori egiaztatua duen pertsona batek lan egitea eskatzen dute.

Egungo egoera honetan eta bi arrazoi horiek direla medio, blokeo-egoera bat sortu da eta, ondorioz, ezin da poltsa behar bezala kudeatu. Batetik, deialdiko 13. oinarrian ezarritakoarekin bat («Lankidetzeta-hitzarmena sinatzen duten udalen premien arabera, hautagaiak egun desberdinetan egin ahal izango dute Prestakuntza Ikastaroa. Hautagaiak lortutako lehentasun-

hurrenkera kontuan izanik banatuko dira»), uste dugu ez dela bideragarria Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak prestakuntza-ikastaroaren beste txanda bat antolatzea, parte hartzeko baldintza izanik euskararen B-2 maila egiaztatzea. Bestalde, efikaziaren eta efizientziaren printzipioen arabera, ez du zentzurik prestakuntza-ikastaro gehiago antolatzeko hizkuntza-eskakizunik ez duen langile gehiago integratzea poltsan, ziur egon arte epe laburrera eta ertainera jasoko diren eskaerak betetzeko langile horiei deituko zaiela.

Blokeo-egoera hori gainditzeko eta lankidetzeta-hitzarmena sinatu duten eta euskararen B-2 maila egiaztatua izatea eskatzen duten udalen zerbitzu-premiak betetze aldera, baldintza hori betetzen duen pertsonalak integratutako poltsa subsidiario bat sortuko da eta, horren bidez, eskaera horri erantzungo zaio, ezin zaionean eskaera horri erantzun 2014-02-24ko (2014-02-25eko EHAA) ebazpenak poltsa sortzeko deitutako hautaketa-prozesuaren bidez sortutako poltsarekin.

Azaldutako guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DUT

LEHEHENGOA.- Hautatutako pertsonen zerrenda (HPZ) bat egitea ebazpen honetan ezartzen diren terminoetan eta baldintzetan, pertsona horiek integra daitezen bitarteko udaltzain-agenteen lan-poltsa berri batean (oinarrizko eskala eta C-2 sailkapen-taldea). Aipatutako lan-poltsa berri horrek Lan Poltsa Subsidiarioaren izaera izango du, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak 2014ko otsailaren 24ko ebazpenaren (2014-02-25eko EHAA) bidez deitutako hautaketa-prozesutik lortu zen bitarteko udaltzain-agenteen poltsarekiko.

BIGARRENA.- Hautatutako pertsonen zerrenda (HPZ) horretakoak izango dira baldintza hauek betetzen dituztenek:

- 1) Poltsa horretan beren borondatez sar dezatela eskatzea;
- 2) Europako Kontseiluak hizkuntzarako onartu zuen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B-2 mailaren parekoa izatea, gutxienez, euskaraz (edo euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetzeko, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren arabera hizkuntza-eskakizuna edo pareko titulua, EHAA, 219 zk., 2010-11-15);
- 3) Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak 2014ko otsailaren 24an emandako ebazpenaren (2014-02-25eko EHAA) bidez deitutako hautaketa-prozesutik lortutako bitarteko udaltzain-agenteen poltsako hautatuetako bat izatea, bai hautaketa-prozesu horretan parte hartzeagatik eta gainditzeagatik eta deialdiko 13. oinarrian aurreikusitako prestakuntza-ikastaroa egiteko helburua indarrean izateagatik, bai Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiaren 2016ko urtarrilaren 18ko ebazpenean agertzeagatik. Azken ebazpen horretan, 2015-03-06ko ebazpenaren (EHAA, 52. zk., 2015-03-17) bidez deitutako Ertzaintzaren oinarrizko eskalako agente-kategorian sartzeko hautaketa-prozedurako 21. oinarrian ezarritakoa bete da.

Lehenengo baldintza betetze aldera, ulertuko da bigarren eta hirugarren baldintzak betetzen dituzten pertsona guztiek bere borondatez eskatu dutela zerrendan sartzea epe barnean eta behar den eran, eta baldintza guztiak betetzen dituztela deklaratu dutela. Beraz, ofizioz sartuko

dira hautatuko pertsonen zerrendan, hirugarren baldintzako zerrendako lehentasun-ordenan, kalterik egin gabe, hautatuak kontrako borondatea duela berariaz adierazten duenean edo baldintzak betetzen ez dituztenean, pertsona horiek botatzeari edo *ab initio* ez sartzeari.

HIRUGARRENA.- Hautatutako pertsonen zerrendakoak (HPZ) poltsan sartuko dira, baldintza hauek betetzen badituzte:

- 1) Euskal Herriko Poliziaren hautaketa- eta prestakuntza-araudia onartzen duen Dekretua bigarren aldiz aldatzen duen otsailaren 17ko 36/2004 Dekretuan agertzen diren baztertzeko osasun-kasuen taulako kasuren batean ez egotea. Baldintza hori Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak egiaztatuko du bitarteko propioen edo kanpokoen bidez, poltsara pasatzeko behar den prestakuntza-ikastaroa egitean; horregatik, pertsonalak behar diren proba mediko guztiak egingo ditu, baztertzeko osasun-kasuen taulara egokitzen diren egiaztatzeko.
- 2) Dolozko delitu batengatik kondenatua ez izatea, administrazio publikoaren zerbitzutik kenduta ez egotea ezta funtzio publikoek baliatzeko desgaitua egotea ere; eta horretarako, interesdunak baimena ematen dio Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritzari hori egiaztatzen duen ziurtagiria eska diezaion Zigortuen eta Auzi-iheslarien Erregistro Zentralari, baldintza egiaztatu behar den edozein unetan. Hala ere, errehabilitazioaren eskubidea aplikatu ahal izango da hautagaiaren konkurrentzia egiaztatzen denean.
- 3) Hutsegite larria edo oso larria egin izanagatik Euskal Herriko polizia-kidegoren batean sartzeko hautaketa-prozeduratik baztertua ez izatea, baztertzea deklaratu zen egunetik zenbatzen hasi eta preskripzio epearekiko baliokidea den epea pasatu denean salbu.
- 4) B eta A-1 motetako ibilgailuak zein ibilgailu lehenetsiak, edo horien baliokideak, kalean gidatzeko baimen administratiboa izatea, Gidarien Araudi Orokorra onartzeko maiatzaren 30eko 818/2009 Errege Dekretuarekin bat. Baldintza hori prestakuntza-ikastaroa kalifikatzen den egunera arte atzeratu ahal izango da, kalterik egin gabe esandako baimen horiek uneoro egon beharko dutela indarrean trebatze-aldi osoan, inoiz ere gidatzeko eskubidea baliogabetu, erretiratu edo kendu gabe, ez erabaki administratibo baten ondorioz, ez erabaki judizial baten ondorioz. Halaber, gidabaimeneko puntuak ahitu gabeak izango ditu.
- 5) Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian nahitaezko izaera eta izaera kanporatzailea duen prestakuntza-ikastaro bat egitea eta gainditzea, ebaluazioan gai kalifikazioa lortuz. Ikastaro horren edukiak Udaltzaingoetarako Euskal Herriko Poliziari buruzko 4/1992 Legeko 27. artikuluan ezarritako funtzioak bitarteko funtzionario gisa eta agente-kategorian lan egiteko behar besteko ezagutza eman behar du.

LAUGARRENA.- Prestakuntza-ikastaroa egiteko pertsonalari deialdia egingo zaio, kontuan izanik hautatutako pertsonen zerrendako (HPZ) lehentasun-hurrenkera eta hitzarmeneko udalek, bitarteko funtzionarioei dagokienez, egiten duten eskaera. Oposizio fasea gainditu zuten hautaketa-prozesuko deialdian parte hartzeko baldintzak eta betekizunak betetzen dituztela egiaztatzeko dokumenturik aurkezten ez duten hautagaiei ez zaie prestatze-ikastarorako deialdirik egingo edo baja emango zaie prestakuntza-ikastaroan. Ez zaie orobat deirik egingo hura aurkeztuta ere baldintza edo betekizunen bat betetzen ez duela ondorioztatuz gero.

BOSGARRENA.- Prestakuntza-ikastaroan gai kalifikazioa lortzen ez duten pertsonak edo azterketa medikoa gainditzeko ez duteneko edo oposizio-fasea gainditu zuten hautaketa-

prozesuko deialdian eskatu zitzaizkien parte hartzeko eskakizunetako eta baldintzetako baten bat galtzen edo falta dutenak hautatutako pertsonen zerrendatik (HPZ) baztertuko dira.

SEIGARRENA.- Ebazpen honetan ezarritakoari aurka egiten ez zaion heinean eta Lan Poltsa Subsidiarioaren araudia onartu arte, Segurtasuna Koordinatzeko zuzendariak 2014-02-25eko ebazpenaren bidez udaltzaingoaren oinarritzko eskalako bitarteko agenteen poltsaren funtzionamenduko araudi bera eta poltsa hori kudeatzeko prozedura arautzen duen jarraibidea aplikatuko dira.

Udal batek aldi baterako pertsonalaren eskaera bat egiten badu, oso presako arrazoizko arrazoiengatik eta arrazoi justifikatuengatik, izapidetze-epeak murriztu ahal izango dira, eskaera horri erantzuteko helburuarekin.

Bitarteko agente izateko eskubide hobearen duen hautagaiaren ohiko etxebizitzaren udalerraren eta hautagai horrek lan egin behar duen udalerrri eskatzailearen artean dagoen distantzia kalkulatzeko, Google Maps tresna erabiliko da: <https://maps.google.es/>, aukera honekin: «kalkulatu distantziarik laburrena autoz, autobideak eta bidesariak saihestu gabe».

ZAZPIGARRENA.- Lan Poltsa Subsidiarioko pertsonalak egiten zaion deia onartu edo baztertu dezake. Dei horiek egingo dira udaltzaingorik ez duten Euskadiko udalerrrien eskaerei erantzuteko, bitarteko pertsonalaren bidez bete daitezkeen udaltzaingoari dagozkion funtzioak (Euskal Herriko Poliziaren 4/1992 Legeko 117. artikuluan ezarritakoarekin bat) ere badituzten (ondasuna, zerbitzuak eta instalazioak babesteko eta zaintzeko funtzioak izateagatik) udaltzaingo-postuen aldi baterako hornidura-beharrak.

ZORTZIGARRENA.- Ebazpen hau iragarki-oholean eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren webgunean argitaratuko da (www.arkauteakademia.net). Webgune honetan ere argitaratuko da: www.udaltzaingoa.net, eta, bertan, hilero argitaratuko da bere egoera, interesdunek bere bilakaera jarrai dezaten.

BEDERATZIGARRENA.- Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen, eta beraren aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkez diezaiokezu Segurtasuneko sailburuordeari edo ebazpen hau eman duenari, hilabeteko epean (jakinarazpen hau jasotzen duzun egunetik aurrera), hala ezartzen baita azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikuluan eta hurrengoetan (30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearena).

Erandion, 2016ko otsailaren 1ean


EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
SEGURTASUN SAILA
Segurtasun Sailburuordea
Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaria
DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD
Viceconsejería de Seguridad
Izpta: **Rodrigo Gartzia-Azumendi**

Segurtasuna Koordinatzeko zuzendaria